

Astekaria

**Z**

**E**

**E**

**E**

**A**

**W**

elgoi



Kandido Txurruka  
**Enbor  
gogorreko  
ezpala**




**ALBAITARITZA KLINIKA**

**ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK**

San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR

Telefona 74 07 04 • LARRIALDIAK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30




KONTZERTUAK  
 MAIATZAREN 18a



**TXO Titereak**  
 OTZAK 10etan

**JOXE MARI CARRERE**  
**Kontalaria**  
 TXURI-BELTZ 11etan

**PETER ROBERTS**  
**Mimoa**  
 MALAPE 12etan

**MAIATZAREN 18a LARUNBATA**



**TAUN TAUN Titereak**  
 LANBROA 1etan



**KEPA GALLEGO**  
 Monologoa KAIA 2etan

**elgoiBARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**PUBLIZTATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Iratzi Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.600 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92


**ISSN:** 1133-021X

**elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**



kultura funtzioak  
Fundación kultura

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

# Ekin eta zabaldu

**U**rtearen lehen herena joan zaigu eta herriko "kultur" balantzea egiteko une aproposa izan daiteke. Udalak hilero antolatzen duen "Gida" hartuz gero, hauek dira datuak: zinea, 30 pelikularekin 135 emanaldi; musika, 5 kontzertu; erakusketak, 5; antzerkia 3 emanaldi eta jolas dramatiko saio bat; mitin jaialdi bat, dantza saio bat eta liburu aurkezpen bat. (San Anton eta ihauterietan egin direnak kanpoan laga ditut, "kultur" bizitza egunerokoa baita eta ez ospakizun baten aurrean egiten den "bilketa").

Zinean murgilduta gaudela dirudi eta zinetik kanpo gauza gutxi, oso gutxi esango nuke. Egia esateko, ez da hau Elgoibarren dugun "kultura"ren islada egokia. Jakin badakit hainbat eta hainbat arlo lantzen ari den jendea badagoela herrian.

Zer gertatzen da, orduan, egiten den lana ezkutuan edo oso gune mugatuan gelditzeko? Lur azpian dagoen hau guztia azaltzeko neurriak nork jarri behar ditu?

Udalak, dudarik gabe, zeresan handia du. Kulturari zor zaizkion txanpon gehien administrazioaile bera denez, herrian dagoen bizitza animatzen eta bultzatzen zeregin handia du.

BARRENez 142. zenbakian azaltzen diren 1996ko Udal aurrekontuek diotenez, urte honetan "KULTURA, GAZTERIA, KIROLA eta HEZKUNTZA"ri %18a ematen zaio (1995an baino %1 gutxiago). Eta "Kultura" bakarrik hartzen badugu %9,87

(109 milioi). Ikusi nola banatzen diren milioi hauek: Pertsonala 17,347 milioi, Jaiak 31,870 milioi, Musika/Dantza Fundazioa 39,181 milioi, Zinea 10,336 milioi, beste "abar" guztiak: 10,336 milioi.


Ez dut esango beste arloek ez dutela kopuru hau merezi, inolaz ere ez. Baina bai "abarrek" gehiago merezi dutela. Baita ere erakundeetatik bultzatu nahi den "kultura" aldera herren nabaria somatzen dela.

Txanponak alde batera utziz, "Kultura" ez baita txanpon arazoa soilik, zer egiten da herrian dauden talde, ekintza eta gogoe-tara hurbiltzeko? Udala denona denez, herritar guztion gogoei erantzun behar lioke. Eta herrian dauden inizatibean bultzatzaile izan behar luke. Dauden taldeekin harremanetan egon eta dauden nahiei atea ireki. Askotan ez da diruarekin egiteko gauza bat. Gogoa behar da.

Kultur arlo ezberdinetan mugitzen garenok ere zer esan handia dugu. Gure bilgunea aurkitzen saiatu behar dugu. Egiten dugun lana kanpora ateratzen, erakusten eta zabaltzen. Bide berriak jorratu beharrean gaude, gure harremanak sendotu eta toki zein era berriak bilatu gure lana azaltzeko. Gabriel Zelaia "La poesía es un arma cargada de futuro" olerkian zioen bezala: "A la calle, que ya es hora de pasearnos a cuerpo. Y mostrar que, pues vivimos, anunciamos algo nuevo".

**Xabier Ansola**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



- Herritar batek **IMI informatika gela ixtea** oso gaizki iruditzen zaiola helarazi nahi dio Udalari. Ikasleen eta batez ere langabetuen kalterako izan dela uste du, "langabeziaren arazoa ikusita, eta informatikaren garrantzia kontuan izanik, atzerapauso ikaragarria izan da. Pertsona batek ordenagailuan zerbeit egin nahi badu, (programa bat landu edo curriculum bat idatzi), akademia partikular batera jo beharko du eta ordaindu, edo ordenagailua daukan lagunen bati mesedea egin diezaion eskatu".

- Ikastolako 4. mailako ikasleek **Juanjo Baztarrika**, "Txutxo" pasteleroa txalotu nahi dute txokolatzeko tarta erraldoi bat oparitu zielako. 60 umeren artean jan zuten eta benetan goxoa zegoela esan dute.

- Mintxetara joateko ohitura duten elgoibartar batzuk tabernako arduraduna izan den **Reyes eta honen familia** txalotu nahi dute. "Alaitasunez, atseginez eta profesionaltasunez lan egin dutelako zoriondu nahi ditugu".

## Mintxetako taberna

**A**zken egunotan Mintxetara hurbildu zarenok bertako tabernan giro korapilotsua aurkituko zenuten. Badi-rudi tabernakoentzat egoera horren erruduna Udal Kirol Patronatua izan dela, erakunde honek Mintxetako garbiketa, mantenua, eta taberna zerbitzuak banatzea erabaki baitu zerbitzu horiek subkontratatzu.

Mintxeta martxan jarri zenetik elgoibartar familia bat izan da hasieratik tabernaren esplotazioaren truke, instalazioaren garbiketa eta mantenuaz arduratu dena. Beraien ustetan egin beharreko mantenu-garbiketa lana gehiegizkoa zenez (4 ordu egunean) pasa den irailean idatzi bat aurkeztu ziguten mantenu-garbiketa eta taberna zerbitzuak banatzea proposatuz, eta guk ere, abantailak ekarriko zituelakoan, horrela egitea erabaki genuen.

Patronatuko alderdi politiko guztien adostasunarekin zerbitzu bakoitzerako oinarriak prestatu eta lehiaketara atera genituen elgoibartar guztiei lanpostu horietara aurkezteko aukera emanaz.

Bertako familia zerbitzu guztietara aurkez zedin animatzen saiatu ginen baina hauei ez zitzairen egokia iruditu mantenu-lorazaintzara edota garbiketa zerbitzura aurkeztea. Tabernarako lehiaketara, aldiz, hiru pertsona aurkeztu ziren eta guztiek jaso ahal izan zituzten oinarrietan garbi azaltzen ziren eta hautapenean kontuan edukiko ziren irizpideak (diru-eskaintza, elgoibartarra izatea, lan-egoera eta euskararen oinarritzko ezagutza). Aipatzen dudana familia ere aurkeztu zen lehiaketara baina lan-egoera eskasagoan (1994tik lan-gabezia) zegoen elgoibartar batek diru-eskaintza handiagoa proposatu du. Bal-

dintza horiek kontuan izanik, Udal Kirol Patronatuak alderdi politiko guztien adostasunarekin, Mintxetako tabernaren ardura azken honi ematea erabaki du.

**Udal Kirol Patronatuko zuzendaria**

## Gu ere intsumisioarekin

**H**erriko pertsona talde bat gara, eta Helkarturik gaude Derrigorrezko Zerbitzu Militararen eta Ordezko Zerbitzu Sozialaren aurrean intsumisioaren bidea aukeratzearen alde. Eta batez ere, intsumituek hautatu duten bide horretan laguntzeko.

"Kode penal berri" bat badagoela esan digute (penagarria da kode hori, eta ez da bat ere berria). Intsumituei dagokienean bizitza baldintzetan eta gazteen etorkizunearan eragingo duten zigoren bidez errepresioa handitzea, isunak, diskriminazioa etab. Gainera, lege berri horrek ba omen ditu akats batzuk maila juridikoan, Halere, bidezkoa izan ala ez izan, legea onartu egin dute eta kasu gehienetan aplikatu egingo da, gizarte zibila berdugo izanik.



Demokrazia-sistema batean bizitzea ez da, besterik gabe, legea obeditzeko arrazoia, legeak legezkoa (demokratikoa) ezezik, justua ere izan behar baitu, eta hau ez da beti horrela izaten. Pertsonen oinarritzko eskubideen aurkako legeak, edo eta guztion onerako ez direnak eta gutxi batzuen interesak babesten dituzten legeak, ez dira justuak eta zilegi da desobeditzea, beti ere horrek kalte handiagoa eragiten ez badu.

Intsumisioari buruzko egungo legea, legezkoa da Estatuaren ikuspegitik, baina ez da bat ere morala ikuspegi orokorretik begiratuta.

**GAINDHI**

**(Intsumisioaren Aldeko Plataforma)**

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua **Sara Etxeberriak** ekarri digu erre-dakziora. 1949ko argazki honetan Plaza Txikian zeuden ortue-tan dago elgoibartar neska kua-drila hau.

Bertan agertzen diren emakumeak hauek dira: **Atzean** tente, **Alicia Marcos, Carmen Zengotita, Lucia Zabala, Isabel Alegria** eta **Juanita Unanue**.

Aurrean eserita: **Crucita Gorostiza, Lola Arrese, Mari Luz Sanz, Jasone Vallejo** eta **Zorione Gorostiza**.

## Cordon, Vilarchao, c.b.

### DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

## BOUTIQUE DEL PAN


Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



**Astlehenean hasi eta igandera bitartean Talde Antimilitarista Aste Antimilitarista ospatzen ari da. Arrazoa, maiatzaren 25ean martxan jarriko den kode penal berria plazaratzea eta salatzea da. Izan ere, aurrerantzean intsumituak seguruenera gartzelara joango ez diren arren, administrazio publikoan 10 eta 14 urte bitarteko inhabilitazioa izango baitute. Lege berriaren arabera intsumisoak "sozialki baztertuak" geratzen dira. Hori dela eta, "kode penal berriarekin intsumisoak narru gorritan" lemapean, hainbat ekintza burutuko dituzte antimiliek.**

**O**rain 20 urte inguru hasi zen objektio mugimendua Euskal Herrian. Hainbat gaztek paper bat betetzen zuen arrazoi ezberdinak medio soldadutzari uko egiten ziotela azalduz. Gero eta gehiago ziren objektore egiten ziren gazteak. Estatuak zerbait egin behar zela ikusi eta ordeko zerbitzu soziala sortu zen. Soldadutzak 9 hilabeteko iraupena du gaur egun, ordeko zerbitzu sozialak 12-14 hilabe-

tekoa. Elgoibarren Gurutze Gorrian 10 gazte inguru ari dira une honetan ordeko zerbitzua betetzen.

Intsumisioa ordeko zerbitzu sozialaren aurka sortu zen. Izan ere, hainbat objektorek, ordeko zerbitzua zigor bezala ikusi zuten eta intsumisioa estrategia modura erabiltzea erabaki. Ordeko zerbitzua egitea ez dute onartzen intsumituek.

**2 urte, 4 hilabete eta egun bat**

Gaur egun bi intsumitu mota daude. Alde batek, ordeko zerbitzua betetzeari uko egin dioten objektorek daude, ordeko zerbitzuaren intsumitua. Bestetik, zuzenean soldadutzari uko egin eta intsumitu egin direnak, soldadutzaren intsumituek.

1992tik aurrera intsumitu direnek 2 urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra jaso dute. Hori izan da orain arteko kode penalaren araberako zigorra. Elgoibarren, momentu honetan gazte intsumitu bat gartzela zigorra betetzen ari da, Lutxi Arregi.

Estatuak gartzelaren bidea hartu zuen, era horretara intsumituek

# Intsumituak narru gorritan

kokildu eta beraien borrokari utzi egingo ziotela pentsatuz. Halere, gazteak bat egin eta are gehiago indartu dira eta herritarren artean ere sentsibilizazio handia sortu da gaiaren inguruan.

Orain, aldiz, bestelako kode penal jarriko da martxan maiatzaren 25etik aurrera.

### **Kode penal berria**

Kode penal berriaren arabera, soldadutzaren intsumituentzat 6 hilabete eta 2 urte bitarteko gartzela zigorra ezarriko da. Halere, antezedenterik ez duenak, bi urte baino gehiagoko gartzela zigorra izan behar du gartzelaratu izateko. Honela, lege berriarekin litekeena da aurrerantzean gartzelara inor ez joatea. Orain arte, urtebeteko gartzela zigorra zen topea libratu ahal izateko.

Halere, kode penal berria ez da hor amaitzen. Izan ere, gartzela zigorrari 10 eta 14 urteko inhabilitazioa gehitu behar zaio: administrazio publikoan ezin dute lanik egin, ez bekarik jaso, etxebizitzak erosteko dirulaguntzarik ere ez...

Soldadutzari uko eginenez objektore izendatu baina ordezeko zerbitzu soziala egiteko prest azal-tzen ez direnentzat, ordezeko zerbitzuaren intsumituentzat, kode penal berriak bestelako zigorrak ezarriko ditu. Alde batetik isuna (70.000 eta 200.000 pta. bitartean) eta bestetik 8 eta 12 urte bitarteko inhabilitazioa.

Intsumituentzat kode penal berria zaharra baino txarragoa da, zigor handiagoa delako. Beraiek hasi berri duten kanpainaren

# HIZTEGIA

■ **Objezioa:** Gerra kasuan armak hartzeari eta bake garaian soldadutzara joateari uko egitea. Kontzientzia eragozpena.

■ **Intsumisioa:** Soldadutza edo haren ordezeko zerbitzu soziala egitera derrigortua egonik, hara joateari uko egin dion pertsonaren egoera.

■ **Ordezko zerbitzu soziala:** Soldadutza egiteari uko egin dioten objektoreek betetzen duten ordezeko zerbitzua. Elgoibarren Gurutze Gorrian betetzen da.

■ **Derrigorrezko soldadutza:** hiritar batzuek legearen aginduz denbora jakin batez armadan eskaini behar duten zerbitzua.

■ **Soldadutza profesionala:** Hiritar batzuek hala aukeratu dutelako beraien zerbitzua eskaintzen dute armadan. Estatuak soldata ordaintzen die.

### **Kode penal berria**

- Soldadutza egiteari uko egiten diotentzat, 6 hilabete eta 2 urte bitarteko zigorra eta 10 eta 14 urte bitarteko inhabilitazioa.

- Ordezko zerbitzu soziala betetzeko prest agertzen ez diren objektoreentzat, 70.000 eta 200.000 pta. bitarteko isuna eta 8 eta 12 urte bitarteko inhabilitazioa.

- Antezedenterik gabeko pertsonak, gutxienez bi urteko zigora jaso behar dute gartzelaratuak izateko.

lemak honela dio, "Kode Penal berriak narru gorritan uzten gaitu". Nahiz eta orain gartzelara joan beharrik izango ez den, gehienek nahiago dute hura inhabilitazioa baino.

### **EUDIMA**

Kode penal berehala jarriko da martxan. Orain arte intsumisioaren alde agertu direnek, orain adierazi beharko dute zein punturaino dauden prest legeak agindutakoa bete-tzeko. Honi helduz, talde antimilitaristen ekimenez EDIMA deiturikoa sortu da, Euskal Udala Intsumituen Mankomunitatea. Dagoeneko badira hainbat herri intsumitu izendatu direnak. Horiek guztiak elkartu eta EUDIMAREN bitartez intsumisioaren aldeko borrokan indar gehiago izatea da helburua. Elgoibarko talde Antimilitaristak mozio bat sartzeko asmoa dauak Udala EUDIMAN sardadin. Hala balitz, beste gauza batzuen artean, Elgoibarko Udala ere betebetean inplikatu beharko litzateke intsumituen borrokan, esaterako, soldadutza-

ko paperak zuzenean Loiolara bidaliz, inhabilitazioa ez aplikatuz lan eskaintzetan, beketan eta abar...

### **Estrategia berriak**

Urte askoko borroka bada ere, badirudi intsumisioak epe motzera ez duela izango irteerarik. Gartzela zigorrak eraginik izan ez zuela ikusita, inhabilitazioa jarriko da martxan berehala kode penalarekin. Honen aurrean, talde antimilitaristen baitan estrategia aldatzeari buruzko eztabaidak hasi dira. Estrategia berri horien artean, soldadutzara joan, hamar egun inguru egin eta gero, alde egitea litzateke bat. Honela, desertore bihurtuko lirateke eta epaiketa epaitegi militarren esku geratuko litzateke, zigorra gartzela militarretan bete beharko luke... Honen bidez, ideologia antimilitarra indartu nahi da, intsumisioaren hastapenetara itzuliz nolabait.



**Argazkian agertzen direnak Elgoibarren dauden intsumituetariko batzuk dira.**

## PP ETA PNVren ARTEKO HITZARMENA

# Madriren bost diputatu izatearen garrantzia

**M**artxoaren 3ko hauteskunde orokorretako kanpainan EAJ-PNVk ozenki aldarrikatu zuen Euskadin bizigaren herritarron interesak babestu eta aurrera ateratzeko euskal alderdi politiko indartsuaren premia Madrileko Diputatuen Kongresuan. Hona hemen, esandakoaren lekuko, bost diputatuk bi hilabeteko lan estuan lortutakoa:

### Burujabetasun fiskala

PNV-PP akordioaren funtsa zergen eremuan datza. 1997an ekonomikoaren araberako kupoa kitatu beharra dago batetik, eta 2001ean itunaren beraren edukinak berriro hitzartu beharra. PNVk zein PPK beharrezkotzat zuten hurrengo bost urteetarako arlo fiskaleko ibilbidea finkatzea. PNVk negoziazio-gutxienekoak ezartzerakoan, argi zuen arlo honek Autonomi Elkartean bizi garen herri-tarrantzat duen garrantzia.

Azken batean, hitzartutakoaren arabera, Euskadiko Autonomi Elkar-teak praktikan burujabetasun fiskala izango du. Hau da, hemen bizi garenon zerga guztiak Euskal erakundeek bilduko dituzte, jarraian, eskumenera arabera, diru horri dagokion xedea

emateko. Izan ere, orain arte tabako, gasolina eta edari alkoholodunei zegozkien zergak Estatuak biltzen zituen. Euskadiko Autonomi Elkarteari dagokionez, 125.000 milioi urteko. Diru horiek, hemendik aurrera Foru-Diputazioek bilduko dituzte.

Milioiak milioi, burujabetasun fiskala izateak duen aparteko garrantzia politiko zein ekonomikoaz aparte, erabaki honek bi ondorio nabarmen izango ditu: euskal erakundeek diru erabilgarriagoa izango dute eskura, erakundeen eguneroko ordainketak arinago egin ahal izateko, eta batez ere, Madrileko Gobernu eta Eusko Jaurlaritzaren arteko eskumenera negoziazioek euskal ordezkari

ritza indartuko dute biziki, dirua eskutan duena izango baita.

### Lan arloa Euskadira

Gernikako Estatuaren edukinak arloren bat hankamotz badu, lan arloarena da. Hamahiru urtetan zehar PSOEk, UGTk eta CCOOk horretara behartuta, gogor eta tinko eutsi dio lan arloko eskumen orori. Konpetentzia horiek Estatuaren esku izateak langileen eskubideak hobeto bermatuko bailiran!

Horregatik, PNVk lehentasuna eman die langileen arloko edukinak zehaztu eta finkatzeari. Programa hauetako asko Estatuak CEOE eta UGT-CCOOn eskutan jartzen dituzte bere kudeaketarako. Ugazaba zein langileen erakunde horiek, ordea, oso jarrera burokratiko eta zentralistak izan dituzte azken urteotan zehar.

Eusko Alderdi Jeltzaleak Euskadiko ugazaba-langileen esku nahi ditu programa horietarik Euskadiri dagozkion dirutzak Gernikako Estatuak dioena bete dadin.

### Bukatzeo

Bost diputatu izan ordez, izan gaitzkeen moduan, hamar bagina... Balantzea egin beharra dago eta ondorioak atera, alajainkoa.



JOSE MARI ORUESAGASTI

## Maiatzaren 26a, igandea

# IBILALDIA 96

## Trapagaran

**Prezioa:** 1.000 pta. (Bazkideak 800 pta.)

**Izena emateko:** Elgoibarko Izarra K. E.

ANTOLATZAILEA:  
Elgoibarko Izarra



LAGUNTZAILEAK:  
Elgoibarko Udala / Gipuzkoako Foru Aldundia





## Zer deritzozu PNV eta PPren arteko akordioari?



### MANUEL CID

36 urte, mekanikoa

Momentu honetan EAJk ez zeukan beste aukerarik. Zerbait egin nahi bazuen PPekin akordio batera iritsi behar zen, beteko duten ala ez akordioa Aznarren eskuetan dago.



### MANOLI CASTRO

33 urte, etxeakoandrea

Ez dut politikaz ezer ere ulertzen baina entzun dudanaren arabera, alderdi ezberdinek hitzegitea onerako izango dela iruditzen zait. Halere, onena zer izango den aurrez jakitea gure esku balego...



### JOSE LUIS HUIDOBRO

44 urte, inpresorea

Arraro xamarra. Ez nuen espero adostasunera iritsiko zirenik. PSOEekin ere akordioa egin zuen eta ez zen ezer onik atera. Arlo sozialean mozketak egongo direla uste dut.



### MERTXE BERISTAIN

74 urte, etxeakoandrea

Espero naban, PNV beti buelta eta jira eta beti barruan. Goixan egotia gustatzen jakuela ez dakat dudarik. Lelengo pausua eman dabe eta oin ikusi ein bihar zer urtetzen dan.



### IRENE BORRAJO

61 urte, etxeakoandrea

Gure onerako, Euskadiren mesederako izango delakoan egin dutela uste dut. Edozeinekin hitz egitea eta komunikazioa egotea ona dela uste dut, ideologiak alde batera utzita.



### SANTI ALKORTA

45 urte, mekanikoa

Politikia zikina da. Arzallusek esan zaban kanpainen PPK irabaziko balu, "Qué Dios nos pille confesados" eta oin paktatu ein dabe. Sorpresa ez, beste edozeinek berdina ingo zaban.

ASESORIA  
**GOIAR**

### AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR



**BERDIN, S. A.**

MATERIAL ELEKTRONIKO  
ETA INFORMATIKO  
BANATZAILEA

OLASO INDUSTRIALDEA

Olasope kalea, 3  
Tel. (943) 74 12 00  
Faxa: (943) 74 30 07

**ELGOIBAR**

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

**BATZOKIA**

JATETXEA  
ETA  
TABERNA

P. Muguruza 8. ☎ 74 03 21

## ■ 1946an jaiotakoen Urrezko eztaiak

Datorren ekainaren 15ean, larunbata, urrezko jaiotza-eztaia bazkaria ospatuko dute aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek. Urtero-urtero berritzen den ohitura honi eutsiz, ohiko ekitaldiek osatuko dute egun horretako ospakizunen egitaraua: eguerdiko 12etan meza parrokiar, eta irteeran argazkia bolatokiko parkean. Denak elkartu bezain pronto luntxa izango dute Zubi-Ondo elkartean eta eguerdiko 14,30etan bazkaria Herri Gain jatetxean. Bazkalostean “Nikolas” taldeak dantzarako giroa jarriko du. Informazio gehiago edo bazkarirako izena emateko 74 18 42 zenbakira (Ines Unzilla) edo 74 06 51ra deitu (Blanki Badiola).

## ■ Eskolaz kanpoko ekintzak Herri Eskolan

Herri Eskolan gozogintza, ingelesez jolasten eta ekologia tailerrak antolatu dira ikastetxeko haurrentzat hauen gurasoen ekimenez. Tailerrak eskolaz kanpoko iharduerak dira eta 4etatik 5,30etara bitartean ematen ari dira. Ekologia tailerra 1., 2. eta 3. mailakoentzat da asteazkenero, eta ingurugiroarekiko harremanak lantzen dituzte. Ostegunetan, 3., 4. eta 5. mailako ikasleei zuzendua, ingeles tailerrean jolasen bidez atzerriko hizkuntzekiko jarrera positiboak garatzea da asmoa. Azkenik, gozogintza tailerrean, astearte eta ostiraletan izaten dena, sukaldaritzarekin lehen kontaktua izaten dute 4., 5. eta 6. mailako haurrek. Bestalde, 5. mailako ikasleek Salamancara bidaiaria egingo dute Eskola Ibiltarien egitasmoaren barruan urriaren 29tik azaroaren 4ra bitartean. Eskola Ibiltariari esker Salamanca monumentala ezagutzeko aukera izango dute: Ruta de la Plata, Candelario, Ciudad Rodrigo eta beste zenbait leku.

## Ibai Etxabe gazteak irabazi zuen Beduako Arrantza Txapelketa

**E**guraldi eskasa eta partehartzaile gutxi izan ziren joan den zapatuan La Unión-ek Zumaiaiko Bedua auzoan antolatutako herritarren arrantza txapelketan. Arrantzale gutxi joan ziren Beduako errekarra, batetik, Jaunartzeak zirela medio, eta bestetik, eguraldi kaxkarraren eraginez. Adibiderik argiena, parte hartu zuten lagunaren kopurua izan zen, 7 baino ez. Iaz berriz, 17 izan ziren.

Txapelketaren dinamika arrainak harrapatu ahala, pisatu, eta, berriro uretara botatzea izaten da.

Hortaz, denera pisu gehien arrantzatzen duen partehartzaileak irabazten du txapelketa. Larunbatean Ibai Etxabek lortu zuen azkenean pisu gehien harrapatzea. Nagusien kategoriako bai eta infantiletako txapelduna ere izan zen Etxabe. Honen atzetik Ubaldo Avila sailkatu zen eta segidan Todor Calvo. Arrantzatutako piezak neurri txiki-koak ziren, korrokoia ia denak, lubinetak gutxi batzuk eta aingira txiki bat baino ez. Piezarik handiena 210 gr.ko arraina izan zen, Francisco Salegik harrapatutakoa.



## ■ Gipuzkoako Gorren Elkarteko 25. urteurrena

Gipuzkoako Haur Gorren Entzumena Suspertzeko Elkartek, Arans-Gi izenekoak, 25. urteurrena ospatuko du maiatzaren 19an, igandea. Elgoibarko haur gorra Bergarako eskolara joaten direnez, herriko haur gor eta hauen gurasoei ospakizunetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete antolatzaileek. Eguerdiko 1ean meza izango da Siervas-en elizan eta 2,30etan bazkaria Udal Biltegian. Informazioa eskuratzeko deitu 76 27 03 zenbakira.

## ■ Antimilien entzerrona eta protesta-ekintza

Aste Antimilitaristaren barruan Elgoibarko intsumituak ostiraleko eguerdiko 12etatik larunbateko eguerdiko 12ak arte Udaletxean itxialdia egingo dute kode penal berriaren aurkako salaketa modura. Itxialdia eta gero, hotz-greba egiteko asmoa dute, hau da, manta batekin bakarrik gorputza estalita protesta-ekintza burutzea, “narru gorritan utzi gaituzte” izenez ezaguna dena. Larunbat arratsaldean Bittor Aiapek Madalako parkean kantatuko du eta gaueko 11ak aldera “All-nighters”-en kontzertua izango da.



## Gazte Asanbladak Gaztetxearen aldeko eta Orueren aurkako pintadak egin izana onartu du

**G**azte Asanbladak komunikabideei bidalitako prentsa ohar baten bidez joan den zapatu goizaldean herriko horma ezberdinetan agertu ziren pintaden autoretzat bere gain hartu du, “Gaztetxearen alde eta Orueren aurka egindako pintadak eta ez besterik, gure gain hartzen ditugu”. Aipatu pintaden artean hau ere irakur zitekeen: “Orue arranka karteles borracho”

Gazte Asanbladakoen hitzetan, zapatan Orue zinegotzia “betiko jarrera probokatzailer eta faxistarekin kartelak kentzen ibili zen”. Gaztetxea bota zuten 5. urteurreneko ekintzei buruzko autokritika eginez “ekintzek desantolaketa itxura” izan zutela adierazi dute eta bide batez jendearen partehartze eskasa salatuz. Udaletxearen jarrera “patetikoa”

izan zela gaineratzen dute “lehenagotik muntatua zegoen Madalako eskenatokia kendu egin zuten guk erabili ez genezan eta lau egun geroago berriz jarri dute”. Honez gain, Udaltzainak Urasanditik bijilatzen egon zirela eta antidisturbios furgoiak etengabe bueltaka ibili izana salatzen dute Gazte Asanbladakoek. Era berean, Errotatxok antolatutako alkoholaren mahainguruan “Drogomenpekotasunen Udal teknikaria den Kati Pons-ek, gure proiektua, ‘Gaztetxearen aldeko Ekimena’ izenekoa, positiboa dela adierazi zuen”. Komunikatuan esaten dutenaren arabera, Gazte Asanbladak leku autogestionatu baten aldeko borrokari eutsiko dio; “eztabaida berriro dago kalean eta honek zenbait amorru bizia eragiten die”.

### ■ Hitzaldia gurasoentzat

Herriko Institutuko Guraso Elkartek gurasoei zuzenduriko hitzaldia antolatu du hilaren 21erako, asteartea. “Seme-alabak nola hezi zorientasunerako” izango da hitzaldiaren gaia eta hizlaria J.A. Pagola. Saioa arratsaldeko 7etan hasiko da Mekanikako aretoan.

### ■ Datorren osteguneko azoka, asteazkenean

Euskal Bizikletaren bigarren etapa datorren ostegunetan, hilak 23, Plaza Handian hasiko denez, ostegunetako azoka egunez aldatzea erabaki du Udalak. Hortaz, azoka asteazken goizean izango da ohiko lekuan.

### ■ Bertso afaria Kimetzen

Datorren ostiralean, hilak 24, bertso-afaria izango da Kimetz elkartearen lau bertsolari gazteren partaidetzarekin. Aurten laugarren aldiz egingo da Kimetz elkartearen bertso-afaria eta oraingo honetan Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Gorka Ojangueren eta Gorka Azkarate arituko dira puntuka. Afariaren zenbatekoa 1.500 pta.koa da eta txartelak Jai-Alai, Usoa, Oiz-Mendi, Orbea, Txuri-Beltz eta Karobi tabernetan eros daitezke. Antolatzaileek gazteak afarira joateko animatu nahi

### ■ Angustiari buruzko hitzaldia asteazkenean

Gipuzkoako Gaixotasun Psikikoen Elkartekoek sensibilizazio kanpainari ekin diote. Antolatu dituzten ekintzen barruan, hitzaldi bat egongo da datorren asteazkenean, hilak 22, Kultur Etxeko hitzaldi gelan arratsaldeko 6etan. Angustiari eragindako arazoei buruz Arrasateko Aita Menni ospitaleko Maria Jesus Zabalo psikiatrak hitz egingo du.

### ■ Baserrietako zaborrak biltzeko elkarlana

Mankomunitateak eta DEBEMENek sinatutako elkarlanaren arabera, erakunde bakoitzak zeregin jakin batzuk izango ditu baserrietako hondakin eta zaborren bilketan. Bien eginkizuna izango da baserriarrei laguntza eskaintzea, bai eta baserriarrei zuzenduriko proiektuak bultzatzea ere, kaletarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren parekoa izango dena. Erakunde bakoitzak milioi bat pta. jarriko du zabor-bilketarako. Jasoko diren zabor edo hondakin klaseak hauexek dira: baserri-etxebizitzetako hondakinak, lur garbiketetan sortutako adar, enbor etab., hildako animaliak, putzu septikoak, negutegietan eta belarra batzeko erabiltzen diren plastikoak, txatarrak eta makina zaharrak, artzain elektrikoak, bateriak, objektu handiak eta obretako hondakinak.

## Mari Angeles Kortabitarte:

# “Beti euki izan dot kanturako afiziua”

**Eusko Legebiltzarrean itzultzaile lanetan aritzen den elgoibartar honek 55 urte ditu eta 15 urte zituenetik Elgoibarko Eliz abesbatzan kantatzen du. Ezaguna da gure artean emakume honen ahots gozoa, izan ere, behin baino gehiagotan ikusi izan dugu bakarlari moduan abesten. Ingeles filologian litzentziatua da eta Deuston ikasten egon zen**

**bitartean San Anton Orfeoian kantatu zuen. Britainia Handian ingelesa ikasten egon zen denbora askoan ere, ez zen kantuz ahaztu eta urtebetez Oxford-eko kristau eliza bateko abesbatzako kide izan zen. Gasteizko Manuel Iradier abesbatzan ere ezagutzen dute Mari Angeles nahiz eta azken aldian ez den haiengana gehiegi azaldu.**

**- Nolatan hasi zinen?**

- Ni betidanik bizi izan naiz Elgoibarren eta txikitatik ezagutu nituen koruak eskolan. Monjek kantu erlijiosoak erakusten zizkiguten eta guk taldeetan abesten genituen. Askok gustatu zitzaizkidan eta horregatik, 15 urte nitueanean, Elgoibarko Parrokiako koruan sartu nintzen. Beti euki izan dot kantatzeko afiziua.

**- Gasteizen egonda ezin entsaiatu, ordea.**

- Orain berez kontzertu gutxiago eskaintzen ditugu baina baten bat eman dogunian nire kontu ikasten ditzut partiturak etxian eta gero, kontzertu egunian beste guztiakin batera entsaiatzen dot. Azken aldi honetan, astian behin Gasteizko pianoko irakasle batekin ere egiten ditzut entsaiuak. Harek pianua jotzen dau eta nik abestu.

**- 40 urtetan aldatu izango da, bada, Parrokiako korua.**

- Bai, ni bertan nagoenetik hiru zuzendari ezagutu ditut. Lehenengo Bereziartua, gero Lodoso eta orain Bilbao. Bereziartuarekin elizako kantuak besten genituen. Felix



## “Beti ematen dizu bilurra ahua zabaltzerakuan atera leikenak”

Lodosorekin berriz, beste-lako kontzertuak ere ematen hasi ginan eta gaur egungo zuzendarixakin bide berdinetik jarraitzen dogun arren, askoz kontzertu gutxiago ematen ditzugu. Jendian ere egon da aldaketarik. Oin gutxi gero eta jende gaztitan biharra dakagu.

**- Ba al duzu musika ikasketarik?**

- Ikasketa sakonik ez, oinarritzko gauzak bakarrik ikasi ditzut. Belarri ona dakat eta errez ikasten di-

txut melodiak. Sasoi batian txistua ikasten eon nitzan Patxiko Etxeberriakin eta horretarako notak irakurtzen ikasi bihar izan naban, noski. Piano elektriko bat ere badakat Gasteizen. Ez dakit jotzen baina kantu berririk ikasteko baliagarria gertatzen jata.

**- Ahots onarekin jaio egiten da ala hezitu egiten da?**

- Ahots ikaragarri onak jaio egiten dira baina heziketaren bidez emaitza onak lortu leikez.

**- Inoiz egon al zara afoniko?**

- Bai eta kontzertu bezperetan gainera. Gogoratzen naiz behin “El case-rio” zarzuelia kantu bihar genduala orkestra txiki batekin Odeoian. Ikaragarriko mobida izan zen eta kontzertua baino egun batzuk lehenago afonika jarri nitzan. Medikuek epelien eoteko eta pastilak eman ziazten. Azkenian ondo jarri nitzan baina estuasun makala pasau naban!

**- Bakarlari izateak zer sentiarazten dizu?**

- Momentu honetan ez dot askotan solista bezela kantatzen baina tokatzen daniari, beti izaten da arduratzen. Nahiz eta astebete lehenatik abotsa prest euki, beti ematen dizu bil-durra ahua zabaltzerakuan atera leikenak.

**- Inoiz hilko ez den ahots bat?**

- Maria Calas-ena.

**- Zure bizitza kantatu beharko bazenu, zein doinutan egingo zenuke?**

- Estilo ezberdinak nahastuz poutpurri bat egingo neuke. Musika klasikua, modernua eta jazza nahastuko nitxuzke.

AMAIA GOROSTIZA

## Aretoko jolasen finalak jokatzeko ari dira

**I**az bezala, aurten ere Aretoko Jolasak antolatu ditu Jubilatuen Etxeak. Karta jokoak izan dira nagusi aste hauetan zehar. Guztira, musean jokatzeko 8 bikotek eman zuten izena, tuterako beste horrenbestek, puntuak 4 bikote aritu dira eta sei briskan. Hasi-  
ra batean domina ere pentsatu zegoen arren, bi bikotek baino ez zuen izena eman; hortaz, bertan behera

**Musa, tutea, punta eta briska dira aurten martxan dauden aretoko jolasak**

uztea pentsatu zen. Dagoeneko briskako finala jokatu bada ere, oraindik beste hirurak geratzen dira, datozen asteetan emango zaielarik amaiera. Karta joko bakoitzeko bikote irabazleak bina irati txiki jasoko ditu sari gisa eta txapeldunordeek txanpain botila bat. Ez da, ez, gauza gutxi gustura baino gusturago lagunartean aritu ondoren e-txera saritxo batez itzultzeko.



**Argazkikoak Briska finala jokatzeko ari dira.**

## MOTZAK

### Zuzendaritza berria Jubilatuen etxean

Orain hilabete inguru egin zen bileran Iñaki Insausti aukeratu zen berriz ere Jubilatuen Etxeko lehendakari. Daniel Legorburu izango da aurrerantzean lehendakariordea, Juanito Gorostiza idazkaria, M.Luisa Garrido diruzaina eta Enrike Eguren, Anacleto Fernandez, Pedro Salinas eta Maria Mortalena bokalak. Hauek guztiak dira Jubilatuen Etxeko zuzendaritza berria osatzen dutenak.



### AImandoz herrira txango Airteera

Jubilatuen Etxeak Nafarroako AImandoz herrira irteera antolatu du hilaren 22rako. Goizeko 8,15etan aterako da autobusa Udaletxe paretik eta goiza Señorio de Bertizeko paraje ederrean igaro ondoren, bazkaria izango da *Beola* jatetxean. Mamut edo Donostia bisitatu eta gero, 20,15 aldera izango da buelta Elgoibarrera. Bidaiaren zenbateko 3.000 pta.koa da eta izena emateko Jubilatuen Etxera jo behar da.

# JOSE ZUBIARRE:

## “Bandako zuzendarixak torerua ere izan bihar dau”

Egun eguzkitsu batean Deban elkartu ginen Jose Zubiaurrekin. 73 urteko gizon honek gaztaroko oroitzapen ugari du. 27 urtez Elgoibarko Bandako zuzendaria izan zen, zilarrezko eztaiak bete zituenean egin zitzaion omenaldia. Musikoa ezezik, antzerkigizona ere izan da Jose, herri ezberdinetan monologo bat edo beste ere antzestu izan du. Guztien artean, halere, aitortu digunez, kitarra da benetan pasioz bizi izan duen afizioa.

### - Zazpi urterekin hasi omen zinen solfeoa ikasten.


- Bai. Ignacio Bereziartua zanakin ikasi naban, “Solfeo de los solfeos” deitzen zan liburuakin. Asko gustatzen jatan, pentsaizu nahixo naban bakazioripe egotia ta solfeora egunero jutia. Tronpiakin hasi ni-tzan, gero tronboia eta bonbardinua ere ikasi nitxun.

### - Elgoibarko Bandak beti izan du estimazio handia.

- Bai, garai batian bailabliak inportantzia handikuak zian. Domekero egoten zian Plaza Haundixan, jende mordo bat egoten zan, aguazilak ibiltzen zian korrua ein ezinikan, kanpotik ere etortzen zan jendia... Gero, 68 inguruan edo jendiak jutiarri laga zion.

### - Zergatik hori?

- Jendia kotxia erosi eta kanpora jutun hasi zan, sala de fiestasak ere modan jarri zian... Plazako bailablietara ez zan inor jutun eta Bandiak ere



laga in zion jotziari.

### - 1956. urtean izendatu zintuzten zuzendari.

- Bai, 1983ra arte egon nitzan. Kanbixo haundixa izan zan, musiko bezela ez zauan hainbesteko arduria ta gainera, direktoriak solfeua eta instrumentua ere erakutsi behar ziuen bestiei...

### - Ez zegoen oraingo musikeskolarik.

- Ez, ez! Igual urtian 100 laguni hasten nitzan erakusten solfeua baina gero, urtian amaitzen zanian bakararra geratzen zan. Jende gaztia zan eta zela obligazio asko zauan itxeko... Oin konserbatorixuakin danak ikasitxa dixez Bandara. Alde ederra!

### - Neke eta poz haundiak, ez?

- Bai, danetik. Direktoriak jende askokin tratau bihar dau eta danekin aurrepegi ona ipini bihar, toreruak bezela. Akordatzen naiz zelan San Bartolome jaixetan, 8 egun izaten nitxun libre eta orduan, fotokopixadorarik ez zauanez, egun guztixak kopixak eskuz eitxen pasatzen naban. Musiko danentzako partiturak eskuz eitxen nitxun. Baina egixa da gero, kontzertu baten ostian jendian txaluek poz haundixa ematen dabela. Kompensau

eitxen

“Kotxe eta sala de fiestasekin desagertu zian bailabliak”



dau.  
- Antzer-

### kigintzan ere ibilitakoa zara, Jose.

- Bai, hala da. Direktore izan aurretik ibili nitzan. Batera eta bestera jutun ginan eta monologuak ere ein nitxun. Neri antzerkixa gustau eitxen jatan, etxeko sukaldian bezela sentitzen nitzan eszenatokixan. Jendian aurrian hazi eitxen nitzan.

### - Halere, zure pasioa kitarra da.

- Bai, beti izan da. 1940xan, gose epokia zan baina nik dirua ahorrau eta gitarria erosi naban. Oñatira jutun nitzan trenian ikastera. Jose Azpiazu izan naban maixu.

### - Kitarraren inguruan badaukazu anekdotarik, ez?

- Bai, amana jun nitzanian gitarria erositxa, negarrez hasi zan. Zela gose denboria zan, pentsau zaban titiriteruak bezala, kalian jotzen hasiko nitzala dirua jasotzeko.

### - Kitarrari esker sariren bat irabazi zenuen.

- Bai, Radio Eibarrek organizau zaban konkursuan “Haga usted lo que sepa”. 80 pertsona presentau ginan lelengo radixuan jotzeko. Handik 18 finalista geratu eta Rialtuan jo genduan. Neu geratu nitzan lelengua. Poz haundixa eman zian.

### - Oraindik jotzen al duzu?

- Ez, laga nion. Baina musika klasikua entzutia asko gustatzen jata.

# Zein da bizitzako loteriarik handiena?

Urteak joan eta urteak etorri, adin batean eta bestean bizitzari buruz izaten dugun iritzia ezberdina izaten da. Bai eta bizitzari eskatzen dioguna ere. Osasuna, maitasuna eta dirua omen dira gizaki orok behar dituen hiru gauzak zoriontsu izateko. Hirurak izatea ez da, ez, erraza izaten. Norberak egin duenaren arabere-

ra jasotzen omen du emaitza, halere, nork ez du loteriara jokatu diru apur bat jasotzeko ilusioz. Guk kalera jo dugu, gure nagusiek ikusitakoaren arabera, edozein pertsonaren bizitzan loteriarik onena zein den jakiteko asmoz. Eta gehienek, osasuna eta familia jarri dituzte goi-goian.




**Julian Mujika**

76 urte

Euskadiko askatasuna lelengo, beste bat pakia... Dirua bizi izateko bihar da baina badaoz beste balore mordo ba-tzuk inportantiauak dianak, justizia... Ni beti

izan naiz diruan kontrakua eta ez dot uste hori danik loterixarik onena.



**Jose Asensio**

72 urte

Orain daukadan adinarekin osasuna iruditzen zait loteriarik onena, bai eta familia ere, seme-alabak ondo ikustea... Dirua eta lana ere ez daitezela sekula

falta, inork ez dizu ezer oparitzen ezerren truke. Aurrera egiteko dirua ere behar da.

**Pepita Armenia**

67 urte

Neretzako osasuna eukitzia eta familixa girua ondo egotia, familixan ondo eruatia. Hori-xe da aberastasunik haundixena. Eta bizitzan konformidadia eukitzia ere inportantia da, diruak asko laguntzen dau baina bestiak ez badaude... alperrik.



**Bernabela Carrasco**

70 urte

Osasuna da benetako loteria. Hori lehenengo, eta bigarrena Jainko-aren argia ikustea, bera baita bizitzan zehar bidea erakutsiko diguna. Nire bizitzan denetik izan dut, badakizu, ba-tzuetan kale eta beste batzuetan bale.



**Salvador Rosa**

71 urte

Gaixotasunik ez eukitzia. Nik zoritxarrez pare bat infarto izan ditut; horregatik osasuna loteria handia da. Gaztetan ez duzu hori pentsatzen, 20 urtekin

bititzea da inportanteena, beste ezertan pentsatu ere egin gabe. Urteekin gauzak aldatu egiten dira.



# Oinak

**O**ina, "hankaren behe-muturreko zati artikulatua" izateaz gain, bizitzan zehar beharrezkoa dugun elementua ere bada, zutik mantentzen gaituena. Oinei esker autonomoak gara; horregatik gure esku dago horiek behar bezala zaintzea. Halere, nagusitzen garen heinean are arreta handiagoz mimatu behar ditugu. Ikerketen arabera, pertsona nagusien %89ak arazo bat edo beste izaten du oinetan. Horiek guztiek konpon edo hobe daitezke bitzta kalitatea hobetuz.

Urteek aurrera egin ahala, ondoko arazoak sortzen dira:

- Artikulazioek mugimendua galtzen dute bai eta ehun adiposoa ere (koipea), horrek hezurren azaleratzea sortuz eta mina eraginez. Helomak, hiperqueratosia (gogordurak), metatarsalgia, erpe itxurako behatzak, HAV (juaneteak), Hallux Rigidus eta abar sortzen dira.

- Azala lehorrean kamatu egiten garbitasun faltari badiogu, micosisak sor daitezke.

- Atzazkala lehorrean egiten da azpian edo infekzioak eragiten dituztatuz.

Arazo hauek oinetan oztopo dira pertsona ororen bizitzan, inestabilitatea sortzen baitute, ibiltzeko zailtasunak izaten dituztenak.

Oinak zaintzen laguntzeko



**IDOIA ARRILLAGA**  
Podologoa

pertsonarik aproposena podologoa da. Horregatik, ideia bikaina iruditzen zait Jubilatuen etxean podologia zerbitzua eskain-tzea. Nik ahal dudan guztia egingo dut guztiak gustura gera daitezten.

Halere, norberak etxean egunero garbitu beharko lituzke oinak, oso ondo lehortuz (batez ere behatz artean) eta ondoren krema hidratantea emanaz, atzazkalak behar bezala moztuta eduki, oinetako eroso bat erabili eta edozein gauza arraro ikusiz gero, berehala podologoarengana jo. Azken finean, prebentzioa da tratamenturik egokiena.



**PAKITA ETXEBERRIA**

## Antxoak saltsan

### OSAGAIK:

Antxoa freskoak, kipula, oliba olio, gatza, ogi xigortua, perexila, ozpina eta ura.

**NOLA EGIN:** Antxoak zenbat eta txikixauak orduan eta gozuao geratzen dia. Lehenengo, antxoak garbitxu bihar dia, burua eta erdiko hazurra kenduta hobe. Gero, tartera haundi batian, antxoak bata bestian onduan ipintzen dia. Bitxartian, zartaina batian kipulia erre bihar da, kipula asko, dorau arte. Antxoen gainian kipulia botatzen da eta ostian, berriz ere antxoekin beste kapa bat ipini. Haren gainera, kipulia fritzeko erabilitxako olixua bota, baitxa ogi arrailua eta binagre piskat, bizitxasuna emateko. Nahi bada perejil piskat ere bota laike eta danan gainetik ura. Poliki-poliki eitxen laga eta listo. Oso ederra geratzen da.



## Joaquin Rosario

### DEBAPE inprimategikoa



- **Zer idatziko zenuke liburu zuri batean?** ▶ Emakumeen edertasunari buruzko liburua idatziko nuke.
- **Zein albiste inprimatuko zenuke gustura biharko egunkarian?**  
▶ Euskadin biolentzia amaitu dela.
- **Zeri buruzko kartekez estaliko zenituzke Elgoibarko hormak?**  
▶ Aurreko galderako egunkariaren portadaz.
- **Zer idatziko zenuke zure aurkezpen-txartelean?**  
▶ Inpresio eta diseinu grafikoa azpimarratuko nituzke profesionalki eta maila pertsonalean konstantzia.
- **Nori josiko zenioke ahoa?** ▶ Harroputzei.
- **Apurtzeaz dagoen harremana lotzeko "kolarik" onena?**  
▶ Konfidantza eta elkarrizketa, komunikazioa.
- **Zerk behar du "korte" hotz bat?**  
▶ Ego ibaiak depuradora bat behar luke, kutsadura mozteko.
- **Zure neurrira egindako bizitza diseinatu.**  
▶ Baserri batean eta paisia bukoliko batean.
- **Zeren tirada haundituko zenuke?**  
▶ Liburuena, jendeak gero eta kultura gehiago izan lezan.
- **Zure ametsak zuri-beltzean ala koloretan izaten dira?**  
▶ Gaur egun bizi dugun egoera ikusita, zuri-beltzean.
- **Zure bizitzan izan duzun inpresiorik handiena?**  
▶ Oporretatik itzuli eta nagusi ohi bat hil zitzaidalda jakitea.
- **Asmatzailea bazina?**  
▶ Makina bat baino, gizakien bihotza zabalagoa egingo nuke.
- **Zure argazkia ordenadorean erretokatuko bazenu?**  
▶ Dagoen bezala utziko nuke, oso garbi daukat.
- **Zure bizitzan bete duzun paperik garrantzitsuena?**  
▶ Beharbada familia bat eraikitzea.
- **Izan nahi zenukeen birtute bat?** ▶ Pazientzia.
- **Eta zein akats ezabatu nahi zenuke zuegan?** ▶ Pazientzia eza.
- **Definitu ondoko hitzak:** ▶ **Maitasuna:** Hitz eder bat.
- ▶ **Zoriontasuna:** Behin-behineko egoera. ▶ **Emakumea:** Gauza zoragarri bat. ▶ **Gizona:** Emakumearen berdina. ▶ **Etorkizuna:** Zuri-beltza. ▶ **Heriotza:** Bizitzaren parte bat, iritsi behar dena.

## INTSUMISIOA

**DOINUA:** Txoriak eta txoriburuak

Soldaduzkara joan behar dela nahiz eta guk jakin aurrez eta bertatik libratutzea ez delako horren errez agintariak bide hortatik ez al dabilta aldrebes derrigorrean ez gera joango ta borondatez ere ez. (Berriz)

Gazte guztiak nahiko gaituzte kanpo eraman preso baina zuk militar horieri ez egin mesedez kaso. Orain nik esan behar dudana, nahiago duzu akaso soldaduzkara joan baino lehen egin zaitetz intsumiso. (Berriz)



ALBERTO GONZALEZ

**KEMEN**  Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



ZURE HAURARENTZAKO  
PRODUKTUEN BANATZAILEA  
EUSKAL HERRIAN:

- Kotxeak eta sehaskak

**BAMBINO**

Estazio kalea 3  
☎ 10 69 93  
**EIBAR**

**DURANGO:** ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - **BILBO:** ☎ 444 71 04

## Mintxetako zerbitzuak nork gestionatuko dituen ezagutzera eman du Udal Patronatuak

**U**dal Kirol Patronatuak maiatzaren 6an aho batez onartu zituen Mintxetako zerbitzuen adjudikazioak. Garbiketa, lorazaintza, taberna eta muskulazio gela dira aipatu zerbitzuak eta guztiek, printzipioz, urtebeteko iraupena izango dute.

Amador Gonzalez Rogelek eskuratu du garbiketa zerbitzua; Asier Rubio Garziak lorazaintza; Argiñe Gabilondok muskulazio gela eta, azkenik, Maite Iriondo izan da tabernaren ardura jaso duena.

Tabernari dagokionean, hasiera batean hileko 90.000 pta.ko alojera ezarri zuen Udalak baina inork ez zuen eskaintzarik egin. 45.000 pta.ra jaitsi zen alojera eta hiru eskaintza luzatu ziren. Zerbitzua nori eman zehazteko orduan zenbait puntu izan dira kontuan: bakoitzak zenbateko alojera eskaintzen zuen, Elgoibarren enpa-

dronatua izatea, euskara eta bakoitzaren lan egoera.

Maite Iriondori eman zitzaion tabernaren gestioa berak egin baitzuen eskaintza ekonomikorik onena, 65.000 pta. eskainiz eta berak zeraman denborarik gehien langabezian.


Garbiketa egiteagatik Amador Gonzalezek 1.116.900 pta. jasoko ditu urtean, lorazaintza lanegatik Asier Rubiok 1.115.758 pta eta Argiñe Gabilondok 2.400.000 pta, azken hau egun osoz baita.

Udal Kirol Patronatuko lehendakaria Gillermo Garate alkatea da, Gotzon Arrieta lehendakariordea eta bokala eta Isaak Loiola (EAJ), Ales Arrieta (EA), Juan Carlos Marcos (HB) eta Jose manuel Herrero (PSE-EE)bokalak. Juan Carlos Avian (PP) eta Juan Carlos Ausin (IU) zientzietatik partehar dezakete baina ez dute boto eskubiderik.



**Goitik behera eta ezkerretik eskumara: elena Garcia, Maite iriondo, Argiñe Gabilondo, Asier Rubio eta Amador Gonzalez.**

**EZ AL ZARA ZURE LENTE PROGRESIBOETARA EGOKITZEN? MULTIOPTICASen ZURI EGOKITUTAKO VARILUXak EGITEN DITUGU**



- ADITU ONENEK PERTSONALIZATU ETA BERMATURIKO EGOKITZAPENA.
- MUGIMENDU ASKATASUNA ETA IKUSMEN EROSOTASUN OSOA.
- SALMENTETAN LEHENA. PREZIOETAN LEHENA.
- ZATIKAKO ORDAINKETA ERREKARGURIK GABE.
- ADOS EZ BAZAUDE ZURE DIRUA ITZULTZEN DIZUGU.

**MULTIOPTICAS UZURI**  
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

San Frantzisko, 21 - Tel. 74 03 59  
**ELGOIBAR**

## Apraiz baserria

- Mendebaldeko fatxadak bost leiho eta ate bat ditu. Leiho zaharrenak ezker aldeko bi gezileihoak dira.
- Aztarnen arabera, ekialdeko aintzinako fatxada errekaraino izango zen seguruen. Egungo fatxadak ate bat eta bost leiho ditu. Gezileiho bat agerian eta beste bat itsutua egonik.
- Kortan dauden kararrizko pilareak eta habe lodiak elementu aipagarriak dira, azken hauek sekzio karratuan landuak egonik. Habe hauek, bat ezik, erabat belzturik ageri dira eta


ertzek apropos eginiko zuloak dituzte, beste funtzio bat bete zuten seinale.

- Barne-espazioak banatzeko holtzek beste materialeen artean burdinolako zepak ere badituzte. Beraz, Jose Barrenetxeak dioenez, litekeena da habe beltz eta apropos zulatuak burdinolatik ekarriak izatea.
- Baserriak dituen arkitektura elementuengatik berant erdi arokoa dela esan daiteke. Halere, hasieratik izan zituen aldaketak, ekialdeko horma errekatik atzeratu zen, iparraldekoan hiru


zimentazio ikus daitezke eta hegoaldeko fatxadak lehen solairuan aintzinako itxura galdu du.

- Etxe barruan ere aldaketa asko izan da. Burdinola itxi ondoren etxea erre edo hondatu egin zela eta berritzailearen usteko olako habeak eta zepak erabili zituzten. Aldaketa hau 1741. urte inguruan gertatu zen.

PELLO ARRIETA



## Sabino Etxeberria Arriola (1900-1985)



- 1900eko urriaren 26an jaio zen Errosario kalean.
- 9 anai-arrebetatik zaharrena zen.
- Gaztetako ikasketak herrian egin ondoren, sasoi ona zuela, eskopeta tailerra ipini zuen eta horrela familiarri laguntzen zion.
- Gerra azaldu zenean eskopeta lantegia desagertu egin zen eta bera Santoña eta Markinako gartzeletan sartu zuten.
- Gerra ostean, eskopeta lantegia ireki zuen. Eskopeta onak egiten zituen eta konpontzaile trebea zen.
- Oso izen ona hartu zuen bailaran. Gizon zabala, irekia eta alaia zen.
- “Konde” tabernako bezeroa izan zen urte askoan, eta bertan egiten zituen afariak, karta jokoak eta alaitasunak lagun artean. Hamaika bazkari eta afari goxo egindako gizona.
- Kirolean, esku pilota bere gogokoa zen. eta txiste eta ipuinak kontatzen grazia handia zuen.
- 1985eko ilbeltzaren 5ean hil zen.

JUANITO GOROSTIZA

*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu, BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*



## MOTZAK

### Ana Etxanizek, brontzezko bi domina

Mintxeta taldeko Ana Etxanizek eta Alaitz Merinok joan den asteburuan jokatu zen Gipuzkoako Atletismo txapelketan parte hartu zuten. Ana Etxanizen jarduna nabarmena izan zen alebin nesken kategoriako lasterketetan. Elgoibartar gazte honek brontzezko bi domina eskuratu zituen, bata 150 metro hesietan 25"7ko denbora eginez, eta bestea, luzera jauzian, 3.79m. saltatu zituelarik. Alaitz Merino 2.000 metrotan 10. sailkatu zen eta 150m hesietan ez zen finalerako sailkatu. Larunbatean, berriz, Mintxetako Atletismo Taldeko infantil mailako neskek Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute honako lasterketa hauetan: 4x60m errelebuak, eta 80 metrotan.

### Ibaikoak, txapelkunak Andorrako txapelketan

Ibaikoek, Eibarko Kalamuakoekin batera, Andorrako Nazioarteko Judo txapelketan parte hartu zuten benjamin txikietatik junior mailara bitartean. Valentzia, Bartzelona eta Frantziako hiru selekzioetako partehartzailekin borrokatu zuten Eibar eta Elgoibarkoek, bai eta taldeka irabazi ere. Txapelketa honetan irabazten duten zazpigarren aldia da eta banakako txapelketan emaitzak hauexek izan ziren: urrezko domina Xabi González eta Jabier Muñozek. Zilarrezkoa Gorka Garatek irabazi zuen eta brontzezkoa Egoitz Morak, Esther Idiakezek, Aitor Mugerzak, Aitor Gonzálezek, Zuhaitz Azpiazuk, Mikel Muñozek eta Carlos Angulok.



Ibai Etxabe:

### "Poz handia eman zidan trofeoa irabazteak"

■ **Arrantza txapelketa irabazten duzun lehen aldia izango da, ez?** - Bai, hiru aldiz joan naiz Zumaiara eta aurten 13 pieza harrapatu ditut 100 gr.tik gorakoak.


■ **Arrain oso txikiak omen ziren.** - Bai, ez dakit zergatik baina horrela da. Gainera gehienak korrokoiak ziren. Oso pozik nago txapelketa irabazteagatik.

■ **Gainontzean arrantzara joaten zara?** - Bai, hala ere, aurten ez gara sarritan joan. Baimena badaukat baina batzuetan asko aspertzen naiz, itsasoan batez ere. Txapelketan ibiltzea gustatzen zait, trofeoa irabazteak poza ematen didalako.

■ **Harrapatu duzun arrainik handiena?** - Aspaldi ez dut ezer hartu. Ez dut arrantzara joateko denborarik. Anaiari laguntzera joan izan naiz, bera arrantzale ona da eta berarekin ikasi egiten dut.

■ **Ehiza eta txakurrak ere gogoko dituzu.** - Bai asko gustatzen zaizkit. Orain bukatuta dago ehiza denboraldia baina oraindik ezin dut ehizatu, 18 urte eduki arte. Natura asko gustatzen zait.

■ **Futbolearen ere gogorra omen zara.** - Bueno... Kadeteetan nago, lehenengo urtean, baina nola bigarren urtekoek guk baino gehiago jokatzen duten... ez dut gehiegi jokatzen



eta piska bat aspertzen naiz. Hala ere, ordezko izateko 20 bat aldiz konbokatuta naute.

■ **Futbolearen serio aritzea nahiko zenuke?** - Bai, jubeniletan jarraitu eta Haundin jokatzea ondo egongo litzateke. Edo bestela, datorren urtean Bergarara joango naiz klaseko batek eta lehengusuak ere han jokatzen dutelako. Agian han sartzeko aukera izango dut.

■ **Eta Errealean?** - Uf, hori oso zaila da. Aita 3. dibisioan zegoela nire postu berdinean Errealera pasatu zen eta bi urtetan jokatu zuen. Hortaz, aitak lortu bazuen, nik zergatik ez?

■ **Futbolaz aparte, beste kirolen bat ere egiten duzu.** - Txirrindularitza eta atletismoa. Iaz hirugarren izan nintzen Nahaste Borrastean eta aurten irabazten saiatuko naiz.

■ **Eurocopa jarraituko duzu?** - Noski, Espainiako selekzioak zer egiten duen ikusteko. Taldekide batek, Zuhaitz Gurrutxagak jokatuko du partidu batean eta derrigor ikusi behar dut.

• **Adina: 14**  
 • **Kirol bat? Futbola**  
 • **Entrenamenduetako txarrena? Korrika egitea da gehien kostatzen zaidana**  
 • **Kinielarik asmatzen al duzu? Bederatzikoa bi aldiz**



## EGONDO, S.L.

METALEZKO ERAIKUNTZAK  
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

## TEXTIL HOGAR LAGUNAK

Jantzi zure etxea diseinu berrieekin.  
DEITU KONPROMEZURIK GABE!

Olaso kalea 54 Tel: 74 44 57 ELGOIBAR



## Iaz hil zen Kandido Txurruka aizkolaria omenduko dute igandean

**E**lgoibarren izan den aizkolari-rik handienari, Kandido Txurrukari, omenaldia egingo zaio igandean, hilak 19, Kalamua Elkarteak, Gipuzkoako Herri Kiro- len Federazioak eta DEBEMENek antolatuta. Aparteko herri kirolen jaialdian Euskal Herriko belaunaldi ezberdinetako aizkolariak bilduko dira, 18 aizkolaria denera, asko erretiratutakoak eta beste asko gaur egun aizkoran dabilzanak. Kandido zenaren ohorez Astibia, Mendizabal, Aierbe, Arria II, Arria III, Agite, Arregi, Etxebeste, Erasan, Mugerza, Elorriaga, Ugarteburua, Arrospide, Olasagasti, Peñagarikano, Nazabal, Mindegia eta Larretxea aizkolariak izango dira. Haeuz gain, 4 trontzalari: Florentino Larrañaga "Agarre-Txiki", J. M. Egaña "Mintxeta", Pedro Txurruka "Deustu" eta J. M. Egaña "Illunpe" eta, harri-jasotzen "Zelai" eta "Egi". Jaialdia alaitze aldera Meabe, Ziarda, Mañu-korta eta Azpillaga bertsolariak eta Zabaleta eta Iker trikitilariak arituko dira. Antolakuntzan Ikastolen Federa- zioak, Kilometroen batzordeak, Udaletxeko 650. urteurreneko batzordeak eta Aldundiak lagundu dute. Jaialdia arratsaldeko 6etan hasiko da Olaizaga kiroldegian. Sarrera 500 pta.koa da.

### KANDIDO TXURRUKA (1927-1995)

- Mutrikun jaio zen 1927ko urriaren 3an.
- Metro bat eta 90 cm. eta 100 kilo pisatzen zituen.
- 1951n, "Kortaberri"ren aurka nagusitu zen. Oinbeteko 4 enbor eta 90 ontzako egur bat 18 minu- tu eta 29 segundotan zatitu zituen.
- 1952an, bi aldiz aurrez aurre aritu ziren Txurruka eta Konta- berri mendarotarra eta bietan irabazi zion Txurrukak.
- Urte berean, Azpeitiko zezen plazan, Etxarriko Goñiren aurka eta 100 bat ikusleren aurrean norgehiagoka estua izan zen; kanaerdiko 12 enbor ebaki behar zituzten. Kandidok 1.310 aizko- rakada eman zituen 36'56"tan eta Goñik, berriz, 1.485 aizkora- kada, 37'21"tan.
- 1953an Azkoitian sasoiko bi aizkolaria bizkorrenen arteko nor- gehiagoka izan zen: Txurruka eta Erramun Yurrebaso. Txurrukak 62 ontzako 10 enbor 36'17"tan zatitu zituen eta Yurrebasok 36"41"tan.
- 1995. urtean hil zen.

# KIROL

## EMAITZAK

### Saskibaloia

Lesaka 47 - Elgoibar S.T. 64

### Pilota

Deba Arroko Txapelketa

KOXXORTUAK:

Jauregi/Eguren (Soraluze) 13 -

Orbea/Arrillaga (Lagunak) 18

GAZTEAK:

Laskurain/Rodriguez (Soraluze) 22 -

Gerrikabeitia/Balzola (Lagunak) 13

NAGUSIAK:

Muguruza/Calles (Soraluze) 22 -

Ansola/Lazarobaster (Lagunak) 12

Iruneko Pilota Txapelketa

Laskurain/Balzola (Elgoibar) 20 -

Mendia/Eloa 22

Añorgako Pilota Txapelketa

Leon I/Garate (Elgoibar) 16 - Añorga 18

Asegarce Txapelketa

Garate/Gerrikabeitia (Elgoibar) 18 -

Gonzalez/Arrieta 5

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 18

12,00 Elgoibar - Aloñamendi (Neskak)

16,30 Urki B - Intxurre (Jubenilak)

Igandea, 19

10,00 S.D. Eibar - Tolosa (Ohorezko kad.)

12,00 Elgoibar - Real Unión (Infantilak)

16,00 Gazteak - Zestoa (Jubenilak)

# Indurain eta Rominger Mintxetan

**Datorren asteazkenean, hilak 22, arratsaldeko 6,30etarako dauka jarrita iritsiera ordua Euskal Bizikletaren lehenengo etapak Mintxetan jarriko den helmugan. Goizean Eibartik aterako diren txirrindularien artean, munduko onenak izango dira: Indurain, Rominger, Zulle, Pantani... Faboritoak asko dira baina batek bakarrik jantziko du txapela hilaren 26an, igandea, Arrateko igoeraren azken etaparen ostean.**

**D**uela hiruzpalau urte eskatu zien Udalak Euskal Bizikletaren antolatzaileei etapa baten bukaera edo-eta hasiera Elgoibarren izatea. Aurten azkenean, lortu du Udalak aspaldiko nahia egia bihurtzea. Asteazkenean, hilak 22, Eibartik irten eta 159 kilometro burutu eta gero, tartean 3. kategoriako 4 mendate, arratsaldeko 6,30etarako ezarri da iritsiera ordura Mintxetako helmugan. Sari banaketa Mintxetako aparkalekuan izango da. Hurrengo egunean, hilak 23, osteguna, Plaza Handian hasiko da bigarren etapa, eguerdiko 12,55etan, eta Etxarri Aranzan amaitu, 229 km gutzira. Honez gain, ostiralean, hilak 24, tarteko helmuga ezarriko da Pilar ikastetxearen parean, 634 errepidean. Txirrindulariak arratsaldeko 4,30etan igaroko dira puntu honetatik.

## **Inguruak libre utzi behar**

Euskal Bizikletaren etorrerak hainbat gora-behera sortuko ditu Elgoibarren trafikoari dagokionean. Asteazken arratsaldean zirkulazioa eten egingo da. Honez gain, IMHko inguruan ezingo da autorik apartatu antolakuntza lanetarako lekua behar izango delako. Hortaz, asteazkenean,

IMHko langileei autorik ez erabiltzea eskatuko zaie eta ikastetxe honetako hainbat bulego antolatzaileen erabilerarako, prentsa eta epaileen lanetarako egokituko dira. Mintxetatik Madalainoko bidean bailak jarriko dira eta goizeko 7etan hasiko dira egokitze lanak. Hortaz, ordu horretatik aurrera Ermuaranbide eta Mintxeta inguruko aparkalekuak libre utzi beharko dira. IMHko langileek Alkortako fundizioan apartatu ahal izango dituzte



**Asteazkenean, 6,30ak aldera iritsiko dira Mintxetako helmugara Indurain, Rominger, Zulle eta besteak.**

euren autoak. Ostegunean, berriz, goizeko 7,30etarako Santa Ana, San Inazio, Antonio Arrillaga, Ubitarte eta Santa Anako errotondatik autoak erretiratuta egon

beharko dira. Kale hauetan bizi direnentzat, Sigmako lantegian eta Andikanoko aparkalekuan egongo da autoa uzteko lekua.

## **Jubenilen Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa jokatu da igandean**

**E**lgoibarko Lagun Taldeak antolatuta eta Udak Kirol Patronatuaren laguntzaz, jubencil mailako Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa izango da igandean, hilak 19, Plaza Handian hasita. 101 kilometroko ibilbidea izango du lasterketak.

Goizeko 10etan hasiko da lasterketa Plaza Handian. Txirrindulariak lau aldiz pasatuko dira Elgoibartik. San Antolinera joan eta herritik igaroko dira 10,08etan. 10,38etan Maltzagatik Elgoibarrera etorriko dira eta 10,50etan Maltzagarantz abiatuko dira berriz. Laugarren pasea




**Igandeko lasterketan parte hartuko duten jubencil taldea.**

11,23etan egingo dute. Txankakuan bira eginez San Migeleko gaina igoko dute. Helmuga Mintxetan izango da eguerdiko 12,37etan.

# Asteburuan ospatuko dituzte jaiak Galiziarrek

**J**oan den astetik Semana Das Letras Galegas ospatzen ari dira Elgoibarren bizi diren galiziarrek. Ohi bezala jai hauen bitartez Galiziako idazle bat omenduko da; aurten Xesus Ferro Couselo Pontevedrako idazle eta ikertzailea. Galiza Etxearen eskutik, Urasandiko Herri Eskolan kokatuko dira urtero bezala jaietako taberna, olagarro saltzaile eta orkestak.

Gaur, hilak 17, ofizialki hasi dira jaiak. Gauean Fabula orkesta eta Duo Plaentxiren jarduna izango da aipatutako jaigunean eta queimada



**Olagarroa, gaitajoleak,... Urasandira bisita egiteko aitzakiarik ez da falta izango asteburuan.**

ezaguna dastatzeko aukera ere egongo da. Asteburu osoan zehar Esgos-eko

“Jesta” taldeko gaitajolek eta Ourenseko dantzariak herriko kaleak bai eta

Urasandiko jaigunea ere alaituko dute.

Larunbat goizean Galiziako olagarroa “a feira” erara eta Ribeiro goxoa dastatzeko aukera izango da. Arratsaldeko 7etan eta gaueko 22,30etan, berriz, Passarela orkestarekin berbena izango da eta Paco Formoso “El General” ezagunak emanaldia eskainiko du. Igandean, meza izango da parrokiaren gaitajole eta dantzariekin eta eguerdian Galiza Etxean bazkaria. Arratsaldeko gaitajoleen jardunak emango dio amaiera aurten Semana Das Letras Galegas-i.

## Peter Roberts, Taun-Taun eta beste hiru antzeztalde herriko bost tabernatan

**K**ilometroak 96ko ekitaldien barruan antzerki maratonia antolatu da maiatzaren 18rako, larunbat gauerako. Bost antzerki saio ezberdin ikusi ahal izango dira gaueko 10etatik aurrera beste horrenbeste tabernatan. Ibilbide moduko bat trazatu dute antolatzaileek: Otzak tabernan hasita, Txuri-Beltz-en jarraitu, Malapen ondoren, Lanbroan hurre-

na eta azkenik Kaia tabernan. Gaueko 10etatik hasita goizaldeko 2ak arte etenik gabe, antzeztalde ezberdinak ikusteko aukera izango da, bakoitzean eskenatokiz aldatuz, kasu honetan taberna batetik bestera joanez.

### Bost antzeztalde

Kilometroak 96ko batzordeen eskutik, Euskal Herrian eta kanpoean ere bai aski ezagunak diren taldeen jardunek antzeztoki bihurtuko dituzte herriko tabernak. Lehen lana txotxongilo saioa izango da eta Otzak tabernan antzeztuko du Txo taldeak gaueko 10etan. Otzak-eko saioa amaitu bezain laster, 11etan Txuri-Beltz-ean Joxe Mari Carrere kontalariak hartuko du parte. Gauerdian Peter Roberts ezagunaren mimo saioaren txanda izango da Malapen. Ondoren Tan-Taun tal-



**Gaueko 10etatik goizaldeko 2ak arte, antzerkia ikusteko aukera izango da etenik gabe.**

dearen txotxongilo obra izango da Lanbroa tabernan. Antzerki-ibilbidearen azkena Kaia tabernan jarri dute antolatzaileek. Goizaldeko 2etan Kepa Gallegok monologia eskainiko du aipatu tabernan.

### ANTZERKI MARATHOIA

22,00: **TXO** Otzak-en

23,00: **J.M. Carrere** Txuri-Beltz

24,00: **Peter Roberts** Malapen

01,00: **Taun-Taun** Lanbroan

02,00: **Kepa Gallego** Kaian

## Schommer ez da erakusketaren inaugurazioan izango

Ongarriko J.M. Sarasuaren bidez jakin izan dugunez, Alberto Schommer-ek ezingo du gaur, hilak 17, hasiko den kaskografia erakusketa inauguratu. Etorriko zela esan bazuen ere, oso lanpetuta omen dabil liburu bat prestatzen. Erakusketa inauguratzerik izango ez duen arren, aurrerago Elgoibarrera bisitaldia egingo duela adierazi digu Sarasuak. Schommer Gasteizen jaio zen 1928an. Pintura eta zinean aritu ondoren argazkilaritzan hasi zen profesional modura. 70. hamarkadarako nazioartean ezaguna zen eta liburuak argitaratzeari ekin zion. 1978rako Espainiako Errege-Erreginen argazki ofizialak egiten zituen. Hara eta hona bidaiatuz hainbat liburu argitaratu ditu, adibidez, "Granito Vivo", "El Grito de un Pueblo", "La vida", "El viaje", "Dios", "Las fotos Psicológicas"... bai eta hamaika bilduma osatu ere: "La dulce violencia", "Tierra fermentada", etab.

## Orain-en antzerkia Herriko Antzokian

Orain antzeztaldeak Labiche frantziarraren "Besarka gaitezen Folleville" komedia taularatuko du gaur, hilak 17. Iñake Irastorza aktoreak eta Rosa Irastorza produkzio arduradunak prentsaurrekoan adierazi zuten, "benetako bodeville-a nahi izan dugu antzeztu, jatorrira joaz". Obra sinplea da, barre egiteko. Aita batek mesede egin dion mutil batekin ezkondu nahi du alaba. Baina alabari beste bat gustatzen zaio eta hortik hasiko dira arazoak. Funtzioan Rolling Stones, Tapia Ta Leturia edota rap musika nahasten dira. Joango direnei puntualak izatea eskatzen zaie, 22,30etarako, lehenengo minutuan azaltzen baitira obra ulertu ahal izateko datuak.

## Ikasturte amaierako kontzertuak eta haurren tanborrada antolatu ditu Musikeskolak maiatza eta ekainean

**Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertuak emango dituzte datorren astean, sei egunetan banatuta. Musika tresnak jotzen dituzten ikasleek hiru saio ezberdin emango dituzte, dantza arlokoek beste hiru saio eta, hau guztiaz gain, haurren tanborrada ere antolatu dute.**

**L**ehen saioa asteartean izango da, hilak 21. Egun honetan pianoko ikasleek errezitaldia eskainiko dute. Miren Gorrotxategi, Amaia Gabilondo, Amaia Lariz eta Silvia Hernández, 8. eta 9. mailako ikasleak guztiak, izango dira joko dutenak. Azken piezan bibolina eta pianoa batera entzungo dira, bi musikatresna hauentzat eginiko sonata joko baitute Amaia Gabilondok pianoan eta Katalin Bukataruk bibolinean.

Ostegunean, hilak 23, perkusioa, saxofoi taldea, tronpeta hiru-kotea tinbalarekin, tronpa eta pianoa, klarinetea eta pianoa, akordeoi taldea, txistularien banda, xilofonoa eta pianoa, abesbatza eta gazteen bandak parte hartuko dute. Ostiralean, azkenik, akordeoi orkestra, txistua, flauta eta klarineteaz gain, korda arloko instrumentuen kontzertuak entzuteko aukera izango da, hala nola, txeloa, korda taldea eta kitarra. Emanaldi guztiak Herriko Antzokian izango dira arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

### Dantza

Ohiko kontzertu hauez gain, dantzak ere izango du presentzia.



**Musikeskolak antolatu du aurten haurren tanborrada eta hauekin batera lehen aldiz joko du Gaztetxoan Bandak.**

Maiatzaren 28an, asteartea, 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek "Ikasleak" izeneko dantza jaialdia taularatuko dute Herriko Antzokian. Ekainaren 4an, berriz, 12 eta 15 urte bitarteko txanda izango da "Lamiak" izeneko ikuskizunarekin. Bi saioak arratsaldeko 7,30etan hasiko dira. Hirugarren emanaldi batean, ekainaren 8an, euskal dantza saioa eskainiko dute Plaza Handian arratsaldeko 6etan.

### Haur Tanborrada

Aurten musikeskolak hartu du bere gain haurren tanborrada antolatzeko ardura. Trinitate egunean, ekainaren 2an, kalez kale arituko dira Musikeskolako Banda Txikiaren laguntzaz. Banda honek kalean joko duen lehen aldia izango da.



### Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.  
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.  
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.  
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.  
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81

### Etxebizitzak

- ❖ Pisu bat salgai. Berritua. Ubitarte 3, 3D.  
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDARAN.  
☎ 74 15 22
- ❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.  
☎ 36 17 18 Amaia (gauez)
- ❖ ERROSARIO 28an pisu bat saltzen dut.  
☎ 74 13 77
- ❖ ETXE BAT ALOKATU nahi nuke Elgoibar edo Deban.  
☎ 74 05 62
- ❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.  
☎ 74 09 74
- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako, abuztua izan ezik, SANTA POLAN.  
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 24 51

### Bestelakoak

- ❖ GAY-HOTSA aldizkaria Eibarko Hilbera tabernan salgai.
- ❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

### Salerosketak

- ❖ ORDENADORE BAT saltzen dut. 486 DX2-66. 8 MB RAM, teklatura eta arratoia. 80.000 pta.  
☎ 19 28 53 / (908) 77 53 67 Ramon
- ❖ KOTXE SILLA egiten den kotxe kapota bat saltzen dut. ARRUE Lord. Merke.  
☎ 74 00 16
- ❖ MOUNTAIN BIKE bizikleta berria saltzen dut.  
☎ 74 30 30
- ❖ JIMSON Elite sport 49cc motorra salgai. Oso prezio onean.  
☎ 74 21 40
- ❖ MENDIKO MOTORRA saltzen dut. 49cc, konponketa txiki bat behar du. 20.000 pta.  
☎ 19 21 07 (gaueko 9etatik aurrera)

### Lana

- ❖ Tailer batean KONTROL NUMERIKOAN lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientzia eta planoak interpretatzen jakitea baloratuko da.  
☎ 74 36 84
- ❖ PERTSONA NAGUSIAK ZAINDU eta konpainia egiteko prest nago.  
☎ 74 33 19 Maria
- ❖ HAURRAK edo PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.  
☎ 74 20 24 M. Angeles
- ❖ GONAK josten ditut neurrirra. Zaharra ekarri eta berdin-berdina egingo dizut.  
☎ 74 21 40 Konsuelo

### Agurrak

- ❖ Maiatzaren 20an 4 urte egingo dituen MARIARI ZORIONAK. Bere familia.
- ❖ Zorionak anitz, 18 urte behin bakarrik. Elgoibartik, Haritz.

- ❖ ZORIONAK XABI PEÑARANDARI hilaren 23an 11 urte betetzen dituelako. Bere familiaren partez.
- ❖ ZORIONAK ION SANCHEZI maiatzaren 18an 9 urte betetzen dituelako. Bere aita, ama eta anaiaren partez.
- ❖ ZORIONAK maiatzaren 20an 4 urte egingo dituen MARIA HERNANDEZI bere lehengusu Unai eta Nerearen partez.
- ❖ ZORIONAK IANIRE ROVIRA ri maiatzaren 19an 4 urte betetzen dituelako. Bere lehengusu Ariane, Xabi, Ion, Nekane eta Anderren partez.
- ❖ ZORIONAK IKAS GORRI eta IKAS BELTZ eskubaloi taldeei Gipuzkoako Txapelketara iritsi direlako. Ikastolako 7. mailakoen partez. Animo ea irabazten duzuen!
- ❖ ZORIONAK NERERI maiatzaren 19an urteak beteko dituelako. Bere familiaren partez.
- ❖ ZORIONAK LARA URAINI maiatzaren 15ean 8 urte bete zituelako, Ainhoa eta Sara Gurrutxagaren partez.
- ❖ ZORIONAK JONI maiatzaren 18an 19 urte beteko dituelako. Bere sendiaren partez.
- ❖ ZORIONAK AINHOA MENDIBILI maiatzaren 18an 8 urte beteko dituelako, lagun guztien partez.
- ❖ ZORIONAK HODEI LOPEZI maiatzaren 18an 4 urte beteko dituelako. Enararen partez.
- ❖ Hilaren 21ean ENARA CASTRILLEJOK 2 urte beteko dituelako, ZORIONAK bere gurasoen partez.
- ❖ ZORIONAK AITOR lortu berri duzun lanpostuagatik. Kristina.
- ❖ ZORIONAK ANTONI 16an 11 super urte bete zituelako. Carlos, Ander Aranzadi, Andoni eta Ikerren partez.
- ❖ ZORIONAK ANDONI ARMENDIARI 15ean 11 urte bete zituelako. Carlos, Iker, Aranzadi eta Andoniren partez.
- ❖ Pasa den ostiralean 11 urte bete zituen HARITZI ZORIONAK "H" eta guzti



### OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
  - Txanda hartzeko.....743354
  - Planning-a .....742950
  - Alkoholiko Anonimoak..740385
  - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
  - Gurutze Gorria.....743864
  - Mendaroko Ospitalea756264
  - Drogomenpekotasun Z..741008
  - Odol Emailak.....743936

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

### UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua .....742158
- Mendaroko Udala ....756100
- Ongizate zerbitzua...743736
- Udaletxea .....741050
- Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

- Caritas .....740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia .....743525
- Musika Eskola .....742145
- Mintxeta .....744315
- Parrokia .....740842
- Polikiroldegia .....741361
- Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola.....74 08 79
- I.M.H. ....74 41 32
- Institutua .....74 02 67
- Ikastola .....74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco .....74 40 73
- El Mundo .....74 27 59
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia .....74 34 74

## OSTIRALA

### 18,00 ALBERTO SCHOMMERen KASKOGRAFIA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean  
Ekainaren 15era arte  
Antolatzailea: Kilometroak 96

### 22,30 ANTZERKIA

Taldea: Orain  
Antzezlanak: "Besarka gaitezen  
folleville!"  
✓ Herriko Antzokian

## LARUNBATA

### 06,00 MENDI TRABESIA BELAGOARA

✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

### 19,30-22,15 ZINEA

"Sentido y sensibilidad"

### 22,00 ANTZERKI MARATHOIA

✓ Lanbroa, Txuri-Beltz, Kaia,  
Otzak eta Malape tabernetan  
Antolatzailea: Kilometroak 96 eta  
tabernak

## IGANDEA

### 10,00 GIPUZKOAKO JUBENILEN TXIRRINDULARI TXAPELKETA

✓ Plaza Handitik

### 16,30 ZINEA

"Vaya Santa Claus"

### 18,00 HERRI KIROL JAIALDIA

Kandido Txurrukari omenaldia  
✓ Olaizaga Kiroldegian

### 19,30-22,15 ZINEA

"Sentido y sensibilidad"

## ASTELEHENA

### 22,15 ZINEA

"Sentido y sensibilidad"

## ASTEARTEA

### 19,00 GURASOENTZAT HITZALDIA

Nola hezi seme alabak  
zorientasunerako. J.A. Pagola.  
✓ Mekanikako aretoan  
Antolatzailea: Herri Institututuko  
Guraso Elkarteak.

### 19,30 MUSIKAESKOLAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 22,00 ZINEA

"Sentido y sensibilidad"

## ASTEAZKENA

### 18,30 EUSKAL BIZIKLETAREN ETAPA AMAIERA

✓ Helmuga Mintxetan

### 18,00 HITZALDIA

Gaia: Angustiak eragindako arazoak  
Hizlaria: M. Jesus Zabalo Psikiatra  
✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: AGIFES

## OSTEGUNA

### 12,55 EUSKAL BIZIKLETAREN ETAPAREN HASIERA

✓ Irteera Plaza Handitik

### 19,30 MUSIKAESKOLAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

## OSTIRALA

### 16,30 EUSKAL BIZIKLETAREN TARTEKO HELMUGA

✓ Pilar ikastetxe parean

### 19,30 MUSIKAESKOLAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 21,30 BERTSO AFARIA

✓ Kimetz-en  
Antolatzailea: HB

### 22,15 ZINEA

"El cartero (y Pablo Neruda)"

# txandak

## FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
18, larunbata:	Etxeberria	Zabaleta
19, igandea:	Etxeberria	Zabaleta
20, astelehena:	Ormazabal	Escala
21, asteartea:	Ormazabal	Escala
22, asteazkena:	Ormazabal	Escala
23, osteguna:	Ormazabal	Escala
24, ostirala:	Yudego	Anduaga

## OKINDEGIA:

19, igandea: EIZAGIRRE

## Aste Antimilitarista

### OSTIRALA, 17

17,00 HAURRENTZAKO  
JOLASAK ETA MARRAZKIAK  
Plaza Handian  
24,00 ITXIALDIA Udaletxean

### LARUNBATA, 18

12,00 IXIALDIAREN amaiera  
19,00 Bittor Aiaperen kontzertua  
Madalako parkean  
23,00 All Nightersen kontzertua  
Madalako parkean

ANTOLATZAILEA: Elgoibarko  
Taldea Antimilitarista.

## Semana das Letras Galegas

### OSTIRALA, 17

19,00 Fabula orkestaren jarduna.  
22,30 Berbena Fabula eta Duo  
Plaentxirekin. Queimada banatuko da.

### LARUNBATA, 18

10,30 Kalejira Esgoseko Jesta  
taldearekin eta Ourenseko Dantza  
Taldekoekin.  
11,00 Galiziako jakien dastaketa  
12,00 Dantzak eta gaitajoleak.  
16,30 Haurrentzako jolasak sariekin.  
18,00 Galiziako jakien dastaketa.  
19,00 Passarela orkesta.  
22,30 Passarela orkestarekin berbena  
eta Paco Formoso "El General".

### IGANDEA, 19

10,30 Meza Parrokian.  
11,30 Kalejira.  
12,30 Gaitajole ekitaldia Urasandin.  
14,30 Bazkaria herriko agintariekin.  
17,00 Dantzari eta gaitajoleak.



**EUSKAL BIZIKLETA**  
**BICICLETA VASCA**

**Asteazkena, 22**  
**HELMUGA**  
**Mintxetan 6,30**

**Osteguna, 23**  
**IRTEERA**  
**Plazan 12:55**




**INTERIORES**

Errosario, 15 behea. ELGOIBAR  
TEL: 74 40 55 - 74 40 19

**Etxeak goitik behera jazten ditugu**

Proiektu eta erreformak    Sukaldeak  
Gremioen zuzendaritza    Opariak





# Kantaldi berezia


SARRERAK

AURREZ: 1.000 pta.

(Elgoibarko Izarra eta BARREN)

TAKILAN: 1.500 pta.

25.



oskorri

**ANTOLATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkarte



**LAGUNZAILEAK:**  
Elgoibarko Udala  
Gipuzkoako Foru Aldundia

